

Nafarroakaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1993ko maiatzak 28 / III. urtea / 77. zenbakia

Bi hormetara



JOSETXO AZKONA

Nik ere —seguraski, zuk bezala—, jakinminez jarraitu nuen Madrilgo telebistaz astelehen gaueko partidua. Irrikitan nengoan zer-nolako ikuskaria eskainiko ziguten bi jokalariek baina, adi-adi egonda ere, temako partidurik ez zen inondik gertatu. Lehia ez zen hainbesterako izan. Ez nuen aposturik eginik ez bata ez bestearen alde; ez lehen ez orain ere, baina, jokua gogokoa dudanaren aldetik —eta besterik ezin bada—, 'gorrixka' nahiago nuke, urdina baino. Eta zuk?...

Gerriko gorrixkadunak —ustez faborito zena—, baldar, zaharkitu eta erreflexurik gabe jardun zuen bi ordutan zehar. Ez zirudien irabazteko gogorik zuenik ere. Berehala, ez-usteko ederra jaso zuen ordea, ez baitzuen uste 'urdina'k hain gogor erantzungo zionik. Akaso, zertxobait errekuperatu zuen partiduren bigarren atalean baina, oro-har, ez zuen afizioea pozik utzi.

Gerriko urdinduna aldiz, gogotsu ikusi zitzaion partidua hasi eta bukatu zuen arte eta, jokaldi onik ez egin arren, publikoaren onespena jaso zuela aitortu beharrean gaudu. 'Urdina' eta bereterrak ez zaizkit inoiz gustatu. Gogaikarria da haien jokua eta, gainera, galduz gero galtzaile txarrak ohi dira: pilota sakelean sartu eta frontoitik ernegaturik erretiratzen diren horietakoak dira eta.

Lolo samar ibili ziren biak, pilotaz bat ere gozatu gabe. Adibide gisa: ez zuten behin ere bi hormetara jaurtiki, eta arriskatu gabe, joku bizirik egiterik ez dagoenez gero, dexente aspertu zen ikuslea. Pilota motelak kantxaratu zituzten biek, lautik atzera ezin eramanez. Bestetik, zein ote zen 'gorria' eta zein 'urdina' bereizten zaila zen zenbaitetan: gerrikoen kolorea aldrebesturik baitaukate aspaldian.

Afizioea —bai etxekoa, bai kanpoko, geroz eta gehiago urdinaren alde egonda—, oker dabilela susmoak ditut. Beste kolorerik non aukeratu ez balego bezala edo! Osasun eta heziketa kontuan, 'gorrixka'k aiseki menderatu zuen 'urdina', ez ordea apostulariari diru-etekinik emateko orduan. Gainerako jokaldietan, paretsu ibili ziren biak: adorerik gabe eta jokuari deus berririk ekarri gabe.

Esan bezala, aurre-semifinal honetako garailea 'urdina' gertatu omen da, eta garaile ere nahi omen dute gehienek ekainaren seiko final egunean. Redios, hola balitz!



Aurten ez da jaialdirik ospatuko Tuteran.

Nafarroako Jaialdiak, ikuskizun hutsa?

Tuterako Castel Ruiz Kultur Elkarteak Nafarroako Jaialdietan parte ez hartzea erabaki berri du. Tuteran, beraz, ez da aurten jaialdirik izango, ikuskizunen kalitateari eta aurrekontuei buruz Principe de Viana erakundearekin izaniko desadostasunak direla eta. Kolpe mingotsa antolatzaileendako, batez ere jarritako arrazoiengatik. Horrek parada ematen du duela 12 urte jaio ziren jaialdien egoerari begiradatxoa egiteko. Horretan dabilzanek kalitatea eta hasierako giroa galdu egin direla diote, eta deszentralizazioa ere kalterako izan zela azpimarratu dute. Tomas Yerro gaur egungo zuzendariaren ustetan, ordea, kalitatea ez da jaitsi, baina Erriberri eta Iruñean berriro kokatzearen alde azaldu da. Iritzia eta eztabaidak ikuskizun hutsa izan behar ez duten ekitaldiendako.

VALEŠI
DE NA
VARRA
FES
JAI
NAFAR
ROAKO
JAIAL
DIAK

Gure aukerak

ERAKUSKETAK



Margo eta Marrazki erakusketak prestatu du aurtengo Nafarroa Oinez taldeak, maiatzaren azken hiru asteburuetarako. Altsasuko Gure Etxean izanen da, eta Sakanako hamar artisten lanak ikusteko aukera dago. Ana Pellicer, Jesus Ignacio Miguel, Pello Mariñelarena, Diego Pino, Javier Gorriti, Jesus Tovar, Koldo Arnanz, Arantxa Izagirre, Manolo Lijo eta Asun Goikoe-txea artistek parte hartuko dute.

MUSIKA



'Izugarri' musika folk taldea ariko da gaur ostirala, maiatzak 28, Zizur Nagusiko Kultur Etxean, bertako udalak antolatutako dituen ekitaldi kulturalen artean. Kontzertua gaueko 10.00etan hasiko da eta sarrerak dohainik izanen dira.

Piskerra, Flitter eta Atraskilones musika taldeak ariko dira bihar larunbata, maiatzak 29, Tuterako Zezen Plazan, Bardeetako Tiro Poligonoaren aurka egiten ari diren ekitaldien barruan. Musika emanaldia gaueko 10.30etan hasiko da.

Jator musika taldearekin gupasa izanen da bihar larunbata, maiatzak 29, Igoako plazan, gaueko 12.00etatik aurrera. Basaburuko Hilabete Kulturala izeneko zikloaren barruan kokatzen da, hurrengo egunean 'Basaburuko eguna' delarik.

MENDI IRTEERAK



Bardeetara txirrundulari martxa antolatu du asteburu honetarako Iruñeko La Tortuga Perezosa taldeak. Larunbatean aterako dira Iruñeko Gaztelu Plazatik, 9.30etan, eta autobusez eramango dira bizikletak Erriberri-raino. Bardeetan bertan lo egin ondoren ibilaldia egingo da, Poligonoraino. Lo egiteko sakua eta bazkaria eraman behar da.

ANTZERKIA



'Automatic' izenburuko antzezlan eskainiko du igande honetan, maiatzak 30, PAI Haur Animazioa taldeak, Zubiriko kaleetan. Emanaldia arratsaldeko 18.00etan hasiko da, eta sarrera dohainik izanen da, Nafarroako Gobernuak antolatutako duen 'Udaberri bira Donejakue bidean' zikloaren barruan baitago.

'Trenean' izeneko obra antzeztuko du gaur ostirala, maiatzak 28, Kollins Clown taldeak, Berriozarko Eskolaren Ospakizun aretoan.

Marañon, Arabarekin mugan


Marañon, Nafarroako mendebaldeko ertzean, puntu estrategikoa izan zen behialan, eta horrek azaltzen du bertan dagoen gazteluaren garrantzia. Arabarekin muga da, eta bertan pagoak eta haritzak ikusteko parada ederra daukagu. Klima trantsiziozkoa da, mediterraneo eta ozeanikoaren artean, eta pagadi hauek estaltzen dituzte La Poblazioneko ozpela. Mahastiak desagertu dira dagoeneko.

Marañondik aterata, goiko partetik, mendebalderantz doan bidea hartu eta Huejas izeneko parajearen lehen ametzak agertzen zaizkigu.

Gazte eta ondo zaindutako zuhaitzak dira ametz hauek. Ale ederrak dira, eta hain segur, askoz ere ugariagoa izango zen beste garaietan. Ondoa, Arabako Izkitzen, penintsula osoan ikus daitekeen oihan ederrena dago.

Bideari jarraiki, arteekin egingo dugu topo, 'estellerriko zurbeltz' deitutakoak. Basoa 'zikina' dagoela diote bertan, ganaduaren falta dela eta. Ezpel asko dago inguruan, eta baita ipuru, gurbitz, eta Mediterraneo eragina erakusten duten beste landare motak ere.

Beraiekin batera kantauri al-



deko ale franko: fagoak, astigarrrak, eta abar. Basurdeak, azeriak eta panikesak antzeman daitezke.

Ibilaldiaren amaiera aldera topo egiten dugu Arga ibaiarekin. Arga osatzen duten bi ibaien batuketarekin, hobeki esanda. Iparraldetik datorren ibaiari, Azazetako Ega deitzen diote, eta arabarra da, goitik behera. Marañon ondotik dabilanari berriz, Bernedoko Ega, eta arabarra jaiotzez, Nafarroa zehar-

katzen du, ondoren berriro sartzen da Araban, Kanpetzun, eta Nafarroan amaitzen du bere ibibidea.

Lizarran ospe hartuko duen ibai hau ez da oparora bere amurruak direla eta, nahiz eta horretarako baldintza egokiak eduki. Hala eta guztiz ere, erzteetan, igarabaren zenbait aztarna antzeman zitezkeen orain dela gutxi arte, Nafarroako beste inongo ibaietan oso arraroa dena.

ASTEKO PERTSONAIK



Rafael Moneo
Arkitektoa

Rafael Moneo Tuterako arkitekto ospetsuak jaso du aste honetan Kulturako Bianako Printzeria saria, Nafarroako Gobernuak Kultur Kontseiluak horrela erabaki ondoren. Nazioarteko ospea duen napar honen lana oso zabala da, eta irakaslea ere izan da unibertsitate famatuetan, Laussane, Princeton eta Harvard kasu. Iaz, Arte Ederretako Domina eman zioten. Bere lanen artea, Thyssen Museoa aipatu daiteke, 1992an inauguratua, Meridako Arte Erromatarren Museoa, Madrileko Atocha geltokia, Logroñoko udaletxea, eta abar luze bat. Iruñean ere lan batzuk egin ditu, Foru enparantza, zezen plazaren zabalpena, eta abar. Egun, Donostiako Kursaal, Veneciako Lido Jauregia eta Stockolmeko Arte Modernoaren Museoa ari da lanean.



Jan Urban
Futbolaria

Bikain aritu zen Jan Urban poloniarra pasa den igandeko neurketan. Atotxa futbol zelaian jokatu duten azken derbia. Gol bat sartu zuen eta beste bietan azken pasea eman zuen futbolariak, azkeneko partiduetan erakutsi duen joku txarra ahaztuz. Berriro ere, duen kalitate ona agerian utzi zuen poloniarrek, denboraldi honetan zorteak lagundu ez badio ere, Osasunaren partidua garrantzi honetan bera izan baita taldearen 'izarra'. Ez da ez emaitza txarra Atotxa futbol zelaian 1-3 gelditzea, aurreko neurketen jokuak ikusi eta gero. Gutxi ziren Osasunak Donostian irabaziko zuela pentsatzen zutenak, are gutxiago emaitza horrekin, baina futbola horrela da, sekula ezin da jakin zer gertatuko den.



Pedro Ruiz de Alegria
Gobernuko ordezkaria

Pasa den asteburuan izandako istiluen ondorioz, Txuma Olaberri 20 urteko gaztea koma egoeran dago Nafarroako Ospitalean, Poliziak botatutako gomazko pilota batek buruan jo baitzuen. Gauzak horrela, Gobernuak Ordezkarria Nafarroan, hau da, Pedro Ruiz de Alegria bizkaitarrak, larunbateko istiluez polizi iturrietatik ez zekiela ezer azaldu zuen, «prentsan agertu dena besterik ez». Era berean, Poliziaren jokaera defenditu zuen. Bere esanetan, «horrelako liskarreta gerta daitekeena ez da sekula segurtasun indarrien erantzukizuna izango». Alde horretatik, istiluetan lau polizi zauriturik suertatu zirela adierazi zuen. Ez zuen ezer aipatu zauriturik geratu diren beste gazte batzuek, eta bera, polizien burua izanda, zerbait gehiago jakin beharko zuen.

AHAZTU GABE!

BARDEETAKO TIRO Poligonoaren aurkako martxa izanen da datorren igandean, maiatzak 30, Poligonoaren aurkako Asanbladak antolatuta. Urtero bezala, maiatzaren amaieran egiten dute martxa hau, eta aurten, ohizkoa izanen da elkar gunea, goizeko 11.30etan. Ondoren, 12.00etan hasiko da martxa. Ordu bete irauten du normalean, eta Tiro Poligonora arte hurbilduko dira bertara joandako lagunak. Bertan, ekitaldi labur bat egingen dutela esan zuten antolatzaileek. Gero, itzuli eta gero, herri bazkaria izanen da Virgen del Yugo pinudian.

Honetaz aparte, Herri Batasuna alderdiak beste martxa bat antolatu du egun horretarako, txirrundulaz egiteko. Zarrakaztelutik aterako da goizeko 9.00etan, eta Los Aguilares-eraino hurbilduko dira, bertan oinez doazenekin elkartzeko, eta guztiak batera Poligonora joateko. Martxa honek 33 kilometro ditu, gehiena zelaian dela aipatu dute antolatzaileek. El Plano, Vedado de Eguaras Erreserba naturala eta Bardea Txuritik pasatuko da martxa hau. Bertan parte hartu nahi dutenek 70 05 37 telefonora deitu behar dute, gaur gaueko hamarrak arte.

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Ostegunero, arratsaldeko 4etan, **30 seme-alaba Nafarroako**. Elkarrizketak.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... **Karakola segi hola** gazteendako saioa.

RNE RADIO 1 OM 835

Astean zehar 20.30etatik 22.30etara... **Zuri eta Beltz** Elkarrizketak, erreportaiak, musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astea zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsona ospetsuei elkarrizketak.

'KRISKITIN-KRASKITIN' ize-

neko saioa izanen da datorren asteazkenean, ekainak 2, Aezkoako Irati irradian. Garrantzako eskolako umeek egina, musika, ipuinak, elkarrizketak eta abar izanen dira. Bestalde, bihar arratsaldeko 14.00etan intsumisioari buruzko eztabaida burutuko dute, telefonoa irekia ezarritik. Bertan, bailarako bi intsumisok hartuko dute parte, biak kartzelan sartzearen daudenak.

Foresta feria heldu den asteburuan

PATXI ULAIAR / IRUÑA

Foresta Basogintza Feria heldu den ekainaren 3tik 5era bitartean ospatuko da Altsasun, arlo hau Europa osoan lantzen duten enpresa eta hornitzaileen partaidetzarekin. Feria honen bostgarren edizioa da hau, eta lehendabiziko aldiz, jardunaldiak eta erakustaldiak toki berean egingo dituzte antolatzaileek.

Feria hau Bilboko Nazioarteko Erakustazokak antolatua da, eta Jesus Coteron bertako Komunikabideendako arduradunaren esanetan, Europar egiten den hirugarrena da, garrantziari dagokionez, Suedian eta Gaskoinian egiten direnen atzetik. Iazko edizioan, Arabako Altube-Marakaldako (Murgia) basoetan egindakoan, 20 erakustokietan bildutako 47 enpresak hartu zuten parte, Euskal Herria, Espainia, Alemania, Austria, Frantzia, Suitza eta Belgikatik etorritakoak. Aurtengo ediziorako 18 erakustamahi paratuko dira Larresalen.

BASOGINTZA POLITIKEZ JARDUNALDIAK

Azokarekin batera, Herrialdeetako Basogintza Politikak Europar izenburua daramaten jardunaldiak egingo dira Sakanako herrian, Europa eta Euskal Herriko partaideekin. Horrela, ekainaren 3an, osteguna, Jose Cruz Perez Lapazararen Nafarroako Gobernuaren Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Saileko kontseilariak emango die hasiera jardunaldiei, 16.15etan, eta ondoren, 'Basogintzaren egoera munduan' izeneko mintzaldia emango du T.J. Peck Elikadura eta Nekazaritzako Erakundearen (FAO) Mendi arduradunak. 17.15etan, 'Elkartearen Basogintza Politikaz' ariko da Christian Anz Nekazaritza Munduan egindako Ekintza Berezien Saileko burua. 18.00etan 'Herrialde-herrialdeen arteko Garapeneren Egitarauaz' mintzatu du P. Brenner CEDREren Zuzendaritzari atxikia, eta bukatzeko Luis Maria Atienza Sernak Espainiako Basogintza Plana azalduko du.

Ekainaren 5ean, ostirala, 'Basogintza Sailaren Pribatizazioa Errusiako Federazioan' izeneko gaia jorratuko du Nikolai Burdin Errusiako Federazioaren Basogintza Ikerkuntza Ekonomikoaren Saileko zuzendariak, 16.15etan, eta ondoren, 17.00etan, 'Basogintza Politika Suitzan' azalduko du Urs Amsutz Suiszar Elkarteko Basogintza Ekonomikoaren zuzendariak. 17.45etan Jose Maria Goñi Nafarroako Goiburuaren Mendi



Gure basoek duten garrantzia azpimarratu dute antolatzaileek.

Zerbitzuaren zuzendariak Nafarroako Basogintza Politika azalduko du, eta Andre Grammont Frantziako Mendi Zerbitzuaren zuzendaria Frantziako egoeraz ariko da. Amaitzeko, Jose Manuel Goikoetxea Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Saileko sailburuak agurra emango die jardunaldiei.

LEHENDABIZIKOZ DENA ALTSASUN

Azokaren hasiera guztiak Bilboko erakustazokan izan ziren,

baina bi edizioen ondotik jardunaldiak azokan baina erakustaldiak eta makinak baso edo oihaletara bertara eramane ziren, bereziki Araba edo Bizkaira. Aurten, lehendabiziko aldiz, dena egingo da toki berean. Altsasu aukeratzeko, kokapena eta bertan aurkitutako jarreraren ona azpimarratu ditu Jesus Coteronek. «Beti iritzia eskatzen zaie Eusko Jaurlaritzari, udalei, diputazioei, eta haien artean Altsasu zegoen. Eta aztertu genuen baldintza guztiak, eta ikusi genuen Altsasu,

oso ondo kokatuta egoteaz gain, basogintza munduan baldintza guztiak bete zituela.

Azokaren antolakuntza Bilboko Nazioarteko Azokarena izan da, eta bertan parte hartu dute Nafarroako Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Sailak; Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailak; Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru aldundietako nekazaritza sailek; eta Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako basogintza elkar-teek.

Igoa

Basaburuko Eguna asteburu honetan

P.U. / IRUÑA

Igoan ospatuko da asteburu honetan Basaburuko Eguna, 'Iriber' elkarteak antolatuta. Larunbatean, gaupasa izanen da, Jator taldearekin, eta igandean, 12ak aldera, Basaburu eta Imozko Gazta lehiaketa izanen da, inguruko gaztagileen partaidetzarekin. 13etan, aizkor apustua: Mingedia-Senosiain, Saralegi-Barberenaren aurka. 14ak aldera, eguneko martxaren arabera, herri bazkaria izanen da, eta bertan hiru bertsolari ariko dira: Estitxu Arozena, Bittor Elizagoien eta Anjel Martikorena. Ondoren trikitilariak ariko dira, eta bostetan haurrendako antzerkia. 18.30etan, Bertako 'Orritz' taldeak antzerki emanaldia emango du, eta gero, trikitilariekin dantzaldia. Hau izanen da Igoan egiten den lehendabiziko aldia, orain artekoak batez ere Gartzaronen eta Berueten egin izan baitira.

Leitza

Bertsolari gazteen sariak banatu ziren pasa den astean

P.U. / IRUÑA

Eskolarteko Txapelketaren azken bi kanporaketak jokatu ziren pasa den ostegun eta ostiralean Leitza eta Beran, eta batuketak guztiak egin ondoren, bapateko finalean lehiatuko dira 6 bertsolariak atera ziren: Estitxu Arozena, Estitxu Fernandez, Amaia Teiletxea, Xabier Erkizia, Xabier Silveira eta Iñigo Olaetxea.

Beran osteguna, hilak 20, izan zen kanporaketa, eta bapatean Xabier Silveira nagusitu zen, Aitor Teiletxea, Oskar Estanga, Iñigo Olaetxea eta Xabier Legarretaren aurretik. Bertso idatzietan Olatz Bergarak irabazi zuen 4.mailan, Maite Goñik 5. mailan, Miren Bidartek 6.ean, Mikel Larretxeak 7.ean, eta Gurutz Villanuevak 8. mailan. Bertso Zaharretan, 1. saria Labiaga ikastolak bereganatu zuen, 'Euskara jalgi

hadi' bertsorekin, eta bigarrena Tantarumairu gelditu zen 'O Baserritxo' abestuz. 3. Saria Arantzako taldeak hartu zuen, 'Aita semeak' bertsorekin.

Leitzako kanporaketan, ostiralean, bapatekoan Xabier Arraras nagusitu zen, Sergio Merino eta Bihotz Astibiaren aurretik. Txikien mailan Iker Apezetxea goizuetarra nagusitu zen, Asier Arzallus leitzaarra eta Juan Jose Altuna beteluarraren aurretik. Bertso idatzietan Iñigo Sgastibeltza nagusitu zen 4. mailan, Fernando Goia 5. mailan, Oinatz Sagastibeltza 6.ean, Oihana 7.mailan, eta Josu Mariezkurrena 8.ean. Bertso Zaharren lehiaketan Leitza 8. mailako taldeak irabazi zuen 'Amak ezkondu ninduen' bertsorekin, eta ondoren Lekunberriko 7. maila gelditu zen 'Ia guriak egin du' bertsorekin. Ondoren, Goizuetako taldea, 'Ume eder bat' bertsorekin.



IZABAko dermioan dagoen Belaguako aterpe berreinauguratu zuten pasa den igandean Club Deportivo Navarrako taldekoek, urtebeteko lanak amaitu ondoren. 66 milioitako aurrekontuarekin, aterpe berria ere izenez aldatu da, eta hemendik aurrera Angel Oloron deituko da, hainbeste urtetan taldeko presidentea eta kidea izan denaren omenez. Aterpeak lo egiteko toki gutxiago izango du, lehen zeuden 120 plazatik 106ra pasa baita, baina erosotasuna eta instalakuntzak franko hobetu dira. Komunak eta eskailera berriak, biltegiak, gelak eta, garestiena eta lan gehien eskatu duena: teiatu berri-berria. 25 urte bete-betean egin duen aterpe berria, beraz, Belaguan.

LIZARRAko musika bandaren debuta izan zen asteartean, Puiko Amabirjinaren egunarekin batera. 38 partaideak harro harro agertu ziren beren soinu tresna eta soineko berriekin, eta Apes-tegiaren 'La Marcha de Estella' izan zuten lehendabiziko pieza. Josetxo Sanchez zuzendariak bere poza agertu zuen jendearen aldetik izandako jarreragatik, eta «hutsak barkatzeko ahaleginak» egitea eskatu zuen.



TUTERAko etorkinak kontrolatzeko egitasmoa hasi du polizia, bertan bizi den «giro nahasia» dela eta. Poliziaren iturriaren arabera, 350 bat izango da egun etorkinen kopurua, eta Atzeritarrendako Legea beteko zutela adierazi zuten. Batzarre eta Izquierda Unida taldeek, bestalde, mozio bat aurkeztu zuten udalan atxiloketak egiteko erabilitako era salatzeke, baina ez zuen aurrera egin. Mozioan agertzen zenez, atxiloketak inolako babesik gabe eta era txarrean egin ziren, eta atxilotutako 22ri botatzeko espeditatea zabaldu zioten.

NOAINgo Kirol Patronatuak ikastaroak antolatzeari uko egin liezaioke, horri buruzko eztabaidan hala erabakitzen bada. Bertan ematen duten arrazoiak 32 monitoreekin inolako lan arazorik ez izatea da. Horrela, hemendik aurrera ikastaroak kirol eta elkar-teek antolatzea proposatu liteke bertatik. Arazoak, baina, ez dira horiek bakarrik, bertako langileek beren kezka azaldu baitute kontzejuz izatetik udalera pasatzean sortu daitezkeen ondorioengatik.

Tuterak muzin egin dio aurten Nafarroako Jaialdietan parte hartzeari, kalitateari eta aurrekontuei buruzko irizpideak direla eta. Erabakiak duela 12 urte sortu ziren jaialdien historian eragina izango du, bere ibilerari buruzko duda-muda franko baitaude egun. Kulturaren munduko partaideen ustetan, kalitate eta girorik gabeko ikuskizun bihurtu dira.

Kalitatea ala arrandia?

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑEA

Tuterako erabakiak min handia egin du jaialdien barruan, batez ere uko egiteko Castel Ruiz bertako kultur elkarteak azaldu dituen irizpideengatik: kalitate falta, aurrekontu sobera eta Tuteran bertan iragarrita zeuden beste ekitaldiekin antz handia izatea. Muin-muinean hiru ziztada: kalitate gabekoak, garestiak eta orijinaltasun falta.

Hamabi urte igaro dira dagoneko, eta hasiera ez zen oso ona izan, ez horixe. Iruñeko Orfeoik eta Kosciceko Orkestra Filarmonikoak beti gogoratuko dute 1981eko abuztuaren 1a, Verdiren 'Requiem-aren' erdian, 'Dies Irae' jotzerakoan izugarritzko ekaitzak denak hanka egitera behartu zituztean, Erriberrin. Gogo handiz eta aurrekontu eskasez jaio zen jaialdi baten lehen gora-behera zen, baina denek, hain zuzen ere, hasierako urte haiek estimatzen dute gehien balarpena egiteko orduan. Garbi dago —denek onartzen dute— galdu egin dela lehen urteetako apustu berritzailea, baina hasieran sortu zen jakinmina, egarria ere. Nafarroako Jaialdiak, egun, «Erriberrira joan, sarrerak erosi eta eseri» besterik ez direla diote kritikoez, eta bidean jendearen partaidetza, giro kulturala eta bizitasuna galdu direla.

«Erriberrin eta Iruñean lehendabiziko urteetan zegoen topaketarako giroa berreskuratu behar da» dio Javier Ibañez Nafarroako Antzerki Elkarteak ki-deak, «eta hain zuzen ere, hori izan behar dute jaialdiak: topaketa kulturalarentzako tokia, ez ikusleentzako eskaparatea». Hau da Nafarroako antzerki, dantza eta musika taldeen partaideen artean, salbuespenik gabe, entzuten den kritika, eta denek gogoratzen dute, malenkoniak, orduko giroa. «Jendeak etxe bat alokatzen zuen hilabete osorako Erriberrin, giroa bizitzeko, eta

Nafarroako dantza, musika eta antzerki taldeen partaideen artean gogoan dute, malenkoniak, lehen urteetako giroa eta bizitasuna.

FESTIVALES DE NAVARRA

FESTIVAL

NAFARROAKO JAIALDIAK

politikariei horrek errentagarritasunik ematen ez badie ere, jendeak asko ikasi zuen urte haiek. Gogoratu behar da Lindsay Kemp, Nacho Duato, Agustín González Azilu edo Miguel Ángel Narros bezalako adituak aritu zirela hasierako urte haiek, berraien ikasgaiak zabalitzen. «Oso esperientzia interesgarriak bizi ahal izan ziren orduan» azaldu du Maximiliano Oleriz Iruñeko Sarasate Musika Kontserbatorioriko zuzendariak, «oso giro bizia eta bixia baitzegoen».

Hiru urte iraun zuten estreineko jaialdi haiek, 1984ean lehendabiziko deszentralizazioa bultzatu zen arte. Hasieran Iruñera, baina gero Altsasu, Lizarra, Tuteran eta Zangozara sakabanatu ziren ekitaldiak eta ikastaroak, eta, askoren ustetan, baita kalitate ere. «Jaialdiak sakabantea kalterako izan da» dio Jose Lainez Nafarroako Dantza Eskolako zuzendariak. «Erriberri jaialdien plaza» zen, bizia, baina sakabanatzean interesa galdu du. «Hasieran, ideia gisa, ongi egon daiteke» dio Ibañezek, «baina inguruetan ondoren, eraginen bat izatekotan, hau da, urtean zehar, ekitaldiak ugaritzeko baliagarria izatekotan. Horrelakorik gertatzen ez bada...». Saka-

banatzeak ere kalitatearen jeitsiera ekarri duela dio Angel Sagues Nafarroako Antzerki Iraunkorreko partaidea. «Sartu izan dituzte maila handiko ikuskizunak horretarako batere prestatuta ez zeuden tokietan, eta hori lotsagarria da. Gainera, egunero, Nafarroan gertatzen ari zenerekin harremana galdu zen, eta horrek ikuskizun hutsak, partaidetzarik gabe, ekarri ditu».

Izan ere, kalitatea da muinetako bat. Denek onartzen dute jeitsiera izan dela, eta antolatzaileen aldetik aurrekontu faltari leporatzen bazaio ere, askok uste dute irizpideak okerrak direla. «Hasieran bazegoen arriskuaren aldeko apustua» dio Lainezek, «eta ikuskizun onak eta interesgarriak ikusten ahal zirenean, Orain dena egiten da gehiengoari begira, eta oso ikuskizun atzerakoiak ekartzen dira. Iaz, adibidez, ez nuen aurkitu gau bat bera ere galtzeko merezi zuen ikuskizunik». «Haiek jende ona ekartzen dutela diote» berretsi du Ibañezek, «baina maila asko jeitsi da, orain publiko zabalago baten aldeko apustua egin delako. Zarzuela bat, kasu, ekartzen bade, Erriberriko plaza beteko dute, baina hori ez da nik deitzen dudako kalitateko ikuskizuna. Bi gauzak bilatu behar dira: jendea erakartzea eta kalitatea». «Izen handiko jendea ekartzen dute» dio Saguesek, «dena ongi doalako irudia sortzeko, baina kalitatea jeitsi da franko, eta partaidetza oso urria da».

Kalitatearen jeitsiera horri aurre egiteko, aholkularitza taldea osatu zen iaz, Nafarroatik kanpoko aditu ospetsuekin, eta horrek haserre handia eragin zuen Nafarroako Kultur Kontseiluan, besteak beste. Ondorioa ere ez zen nabaria izan, kalitateak ez baitzuen gora egin, eta aurten esperientzia ez errepikatzea erabaki da. Hala ere, kultur munduan kexu dira iritziak eskatu ez izanaz. «Jaialdiak antolatze

Kalitatearen jeitsiera gelditzeko Nafarroatik kanpoko aholkulari taldea osatu zen lehengo urtean, baina aurten baztertu da, emaitzak direla eta.



orduan, hemen bizi den giroarekin uztartu beharra dago» dio Saguesek, «giro horren eskaera gizartera hel dadin». «Lehengo giro hori berreskuratu beharra dago» azpimarratu du Olerizek, «hemengo jendearen artean giro ona eta bizitza berri sortzeko. Jaialdi haiek Salzburgeko edo antzeko jaialdien planteamendua daukate gaur egun, eta kontuan harturik oso lurralde txiki eta xumean gaudela, estilorik gabeko gauza simplea baino ez dugu egin ahal izango. Eta horrelako jaialdiak ez dira interesgarriak. Interesgarria da hemengo jendearen esperientziak azaltzea eta bultzatzea».

Buelta emateak ez dirudi oso erraza, besteak beste, beharrei eta egoerari buruzko benetako gogoetak ez delako egin. Bitartean, Valentin Redin, Jaialdien sortzailea eta urte onenetan zuzendaria, harriturik eta penaturik...

Dantza eta antzerkia izan dira urte guzti haiek jaialdien oinarriak, baina maila franko jeitsi dela azpimarratu dute denek. Argazkietan, iazko ikuskizun zenbait. JOXE LACALLE



Tomas Yerro: «Jaialdiak berriro zentralizatzearen aldekoa naiz»

JUAN KRUIZ LAKASTA / IRUÑEA

Nafarroak lehendakari berria izan zuen 1992an, eta Nafarroako Jaialdiek zuzendari berria. Juan Cruz Allik Elkarte Foralaren gidaritzan hartu zuen, eta Tomas Yerrok jaialdiena. Hauek izan dituzten kritikei erantzuten saiatu da ondorengo lehen urtean.

EGUNKARIA.— Askok diotenez azken urteotan Nafarroako Jaialdiak eskeintzen dituen ekitaldien kalitateak jeitsiera nabaria izan du, Ados zaude?

TOMAS YERRO.— Oro hori, kalitatea ez da jaitsi. Lehendabiziko jaialdietan maila goreneko talde batzuk aritu ziren, baina azken urteotan gauza bera gertatu dela esan dezakegu. 1981.

urteak hona Nafarroako kulturaren egoera nabarmen aldatu da, eta horren ondorioz lehen gauza berria eta erakargarria zena egun ez da horren berria eta erakargarria. Aurrekontuetan murrizketa nabaria gertatu da, batez ere iazkoetan, eta horrek ere baditu bere ondorioak. Nire ustez, Nafarroan azken urteotan gertatu diren aldaketak sakonak Nafarroako Jaialdien balorazio negatiboa eragiten ari dira.

EGUNKARIA.— Kalitatea eta ikuskari berritzaileak alde batera utzi eta jende asko biltzen dituz-

ten ekitaldiak antolatu dira azken urteotan, eta horretan dabilzanak kexu dira horretaz.

YERRO.— Hori ez nuke orokorrean onartuko. Joan den urtean, Iruñean esate baterako, jende kopuru txiki baten arreta deitu zituzten ekitaldiak antolatu genituen. Beste ekitaldi batzuek, berriz, jende frankoren arreta deitu zuten.

EGUNKARIA.— Sarritan, jaialdiak hainbat herritan sakabanteak beren nortasuna eta eragina du, Ados zaude?

TOMAS YERRO.— Oro hori, kalitatea ez da jaitsi. Lehendabiziko jaialdietan maila goreneko talde batzuk aritu ziren, baina azken urteotan gauza bera gertatu dela esan dezakegu. 1981.

urteak hona Nafarroako kulturaren egoera nabarmen aldatu da, eta horren ondorioz lehen gauza berria eta erakargarria zena egun ez da horren berria eta erakargarria. Aurrekontuetan murrizketa nabaria gertatu da, batez ere iazkoetan, eta horrek ere baditu bere ondorioak. Nire ustez, Nafarroan azken urteotan gertatu diren aldaketak sakonak Nafarroako Jaialdien balorazio negatiboa eragiten ari dira.

EGUNKARIA.— Kalitatea eta ikuskari berritzaileak alde batera utzi eta jende asko biltzen dituz-

ten ekitaldiak antolatu dira azken urteotan, eta horretan dabilzanak kexu dira horretaz. **YERRO.**— Hori ez nuke orokorrean onartuko. Joan den urtean, Iruñean esate baterako, jende kopuru txiki baten arreta deitu zituzten ekitaldiak antolatu genituen. Beste ekitaldi batzuek, berriz, jende frankoren arreta deitu zuten. **EGUNKARIA.**— Sarritan, jaialdiak hainbat herritan sakabanteak beren nortasuna eta eragina du, Ados zaude?

TOMAS YERRO.— Oro hori, kalitatea ez da jaitsi. Lehendabiziko jaialdietan maila goreneko talde batzuk aritu ziren, baina azken urteotan gauza bera gertatu dela esan dezakegu. 1981. urteak hona Nafarroako kulturaren egoera nabarmen aldatu da, eta horren ondorioz lehen gauza berria eta erakargarria zena egun ez da horren berria eta erakargarria. Aurrekontuetan murrizketa nabaria gertatu da, batez ere iazkoetan, eta horrek ere baditu bere ondorioak. Nire ustez, Nafarroan azken urteotan gertatu diren aldaketak sakonak Nafarroako Jaialdien balorazio negatiboa eragiten ari dira.



Tomas Yerro, Jaialdien zuzendaria.

JOXE LACALLE

EGUNKARIA.— Joan den urtean, Nafarroako Kultur Kontseilua alde batera utzi, aditu kanpotarrak kontratatu zenituzten jaialdien egitaraua antolatu zezaten. Horrek askoren haserre piztu zuen. Aurten berriz eskatu al dituzte haien aholkuak?

YERRO.— Urte honetan ez da hori egin, eta berriro ere Principe de Viana elkarte teknikarien aholkuetan oinarritu dugu egitaraua. Joan den urtean berriak ziren Hezkuntza eta Kultura Sailako arduradunak eta hori dela eta

bestek batzuetan ez. Yauzkari dantza taldeak, adibidez, garai batean urtero muntaiak berria taularatzen zuten jaialdietan, eta Iruñeko Orfeoia eta Iruñeko Kamara Abesbatza behin baino gehiagotan aritu dira jaialdietan. Azken urtean ez zen talde nafar bakarra ere agertu egitarauan, baina horrek badauka bere zergatia. Zorionez Nafarroako talde gehienek urtean zehar badute Nafarroako Gobernuak edo udaltxeek antolatutako egitarauetan parte hartzeko aukera, eta gure ustez Nafarroako Jaialdiak ikusleentzat ezegunak eta erakarriak ziren ikuskariak eskeini behar zituzten.

bestek batzuetan ez. Yauzkari dantza taldeak, adibidez, garai batean urtero muntaiak berria taularatzen zuten jaialdietan, eta Iruñeko Orfeoia eta Iruñeko Kamara Abesbatza behin baino gehiagotan aritu dira jaialdietan. Azken urtean ez zen talde nafar bakarra ere agertu egitarauan, baina horrek badauka bere zergatia. Zorionez Nafarroako talde gehienek urtean zehar badute Nafarroako Gobernuak edo udaltxeek antolatutako egitarauetan parte hartzeko aukera, eta gure ustez Nafarroako Jaialdiak ikusleentzat ezegunak eta erakarriak ziren ikuskariak eskeini behar zituzten.

Iaz aditu kanpotarren aholkuek berrikuntza ugari ekarriko zituztela uste genuen. Egia esateko, ez zen horrelakorik gertatu. **EGUNKARIA.**— Hasieran harreman estua zuten jaialdiak kalea eta jendearekin. Gero eta txikiagoa da harrera hori. Zer egin behar da horri aurre egiteko? **YERRO.**— Ezin dut hori ukatu. Dena den, harrera hori ez da bakar-bakarrik azken urtean gutxi, lehendik ere gertatzen ari baitzen. Zenbait urtetan kale ikuskariak antolatu ziren eta horiek eragin nabaria izan zuen jendearen eta komunikabideetan. Joan den urtean, ekitaldiak nire ustez kalitate onekoak izan

bestek batzuetan ez. Yauzkari dantza taldeak, adibidez, garai batean urtero muntaiak berria taularatzen zuten jaialdietan, eta Iruñeko Orfeoia eta Iruñeko Kamara Abesbatza behin baino gehiagotan aritu dira jaialdietan. Azken urtean ez zen talde nafar bakarra ere agertu egitarauan, baina horrek badauka bere zergatia. Zorionez Nafarroako talde gehienek urtean zehar badute Nafarroako Gobernuak edo udaltxeek antolatutako egitarauetan parte hartzeko aukera, eta gure ustez Nafarroako Jaialdiak ikusleentzat ezegunak eta erakarriak ziren ikuskariak eskeini behar zituzten.

Gazteendako Zokoa



XAKEAN

Udaberriko Txapelketako 5. jardunaldiko partida, 1993ko maiatzaren 22an jokatu. J.M. Mendizabal (2.350 ELO), txuriekin, J.J. Mindegiaren (1.865 ELO) aurka.

1.e4,c5; 2.Zf3,Zc6; 3.d4,d4; 4.Zd4,Zf6; 5.Zc3,e5. Zalantzazko jokaldia, damaren peoia ahultzen baitu. 6.dZ-b5,d6; 7.Ag5,a6; 8.Za3,b5; 9.aZ-b1,Da5; 10.Zd2,Zd4; 11.Af6,f6; 12.Zb3,Dc7. Zaldia aldatu behar zuen. Orain peoi bat galduko du. Eta posizioa, nahiko hankaz gora. 13.Zd4,d4; 14.Dd4,Ae6; 15.Zd5,Ad5. Derri-gorrezkoa. Alfilen bikotea apurtuta geratu arren. Bestela, 15..., Dc7; 16.Zf6 xa,Ed1; 17.Zd5,Gg8; 18.Db6 xa, Ec8; 19.De3. Oso larri jarriko lirateke beltzak. 16.Dd5,Gc8; 17.Ad3, Gg8; 18.g3,Gg5; 19.Db3,d5. Aurrerapen honekin, erregea babesik gabe utzi du. 20.0-0-0, d4; 21.hG-e1,Gc5; 22.f4,Da5; 23.e5,f5; 24.e6,Ae7; 25.f7 xa,Ef8; 26.De6,Dc7; 27.Dh6 xa,Ef7; 28.Dh7 xa,Ee8; 29.Dg8 xa,Ed7; 30.Af5 xa,Gf5; 31.De6 xa, Ee8; 32.Df5,Dc4; 33.Gd4. Beltzek aski izan zuten. Makurtu ziren.

Bertsoak

Gaia: Zaldiak. Doinua: uso txuri polit bat. Baztango ikastolako 4. mailakoa.

Zaldiak hemen daude guztiak jauzika eta mutilak berriz beraiei segika, zaldiak izuturik dabilta korrika mutil bat erori da itzilipurdika

Azkenean zaldia hanka apurtuta lurrera erori da zeharo minduta medikua torri da merkromina hartuta gainean jarri dio manta zabaldua

Joanes Lazkano Bikondoa

Lagunak galtzen

JUANA M^a MARIN

13 urte ditugunean, gauza asko pentsatzen ditugu. Guzti horien artean beti edo ia beti badago bat asko kezkatzen gaituena: 8. maila bukatutakoan nora joan.

Hau pentsatzerakoan, ez dugu pentsatzen zein ikastetxe ote den hobea edo non ikasiko dugun hobeto, baizik eta ikastera joan behar dugun ikastetxean lagunekin egongo garen ala ez. 14 urterekin, gela berri batera joan eta jende berriarekin egoteak beldur handia ematen digu, eta askoz ere handiagoa gela horretan inor ezagunik ez badago. Nik alde horretatik zorte handia izan dut, nere gela berean aspaldiko lagun ugari ditudalako, baina nere aintzinako gelako beste neska bat beste institutu batean dago eta ikasturte

hasi zenetik gure harremanak okertzen joan dira.

Nere ustez, gaur egun dagoen hezkuntza legea ez dago ondo antolatuta, lagunak egiten dituzulako eta denbora dezente beraiekin egon ondoren (nere kasuan zazpi urte), gero beste gela batera joan eta lagunak atzean uztea ez baitago batere ondo. Nere ustez erreforma lehenago egiten hasi beharko zuten, orain ni lagun maite bat galtzen hasi naitzelako, eta hau ez zait batere gustatzen eta, ziuraski, nire egoera berberan jende ugari dago. Ikusten dugu nola lehen lagun txit maite zena urrutiratzen ari den eta ezin dugula ezer egin hori geldiarazteko.

Inori ez zaio gustatzen ezer ez galtzea, erlojua, kartera, dirua,

betaurrekoak eta are gutxiago ere lagunak.

Badakit, nolahi ere, gela berriari lagun berriak eginen ditugula, baina ulertzen ez dudana zera da, lagun berri bat egiterakoan beste lagun bat galdu behar izatea... nik nahi ditut lagun berriak egin eta baita ere lehendik nituenak kontserbatu, baina orain konturatzen naiz bi gauzak ez direla batera etortzen. Lagun berriak egiterakoan beraiek duten pentsamoldetara moldatu behar duzulako, eta kasu guztietan lehen zenituen uste eta pentsamenduak ez dira berberak.

Nere lagun honi gertatzen zaiona, nere ustez, hauxe izan da, eta orain berak nik eta beste lagun batzuk gutxiago izango bagina bezala ikusten gaitu.



Bizkaia

Gehientzat gaurko mendia ezezaguna izanen da. Txikia izanik Iruñetik hurbil egoteak ematen dio halako garrantzia. Aranguren eta Elortzibarren arteko muga da. Esan bezala garrantzi txikioa da eta horregatik, beharbada, izenik ere ez du. Mapaegileek, hala ere, izen bat paratu behar izan zuten haren gainean eta, burua gehiegi hautsi gabe, *Sierra de Tajonar* sortu zuten. Taxoarekoek, ordea, gaur egun *Montechiquito* (euskaldunak zirenean *Oiantxikia* deitu zioten) eta *Montegrande* ibiltzen dute. Elortzibarrekoek, berriz, *Bizkaia* eta *El Cerro*. Elortzibarrekoen usadioa begiratu Toponimia Taldeak *Cerro de Bizkaia* ofizializatu du zenbait planotako *Sierra de Tajonar* edo *Taxoareko Mendizerraren* ordez.

Erabaki honetan militarrek ditugu aintzindari. Nik dakidala izen hau, *La Vizcaya*, estraineko aldiz agertzen da plano batean 1859. urtean argitaratzen den *Itinerario General Militar de España* liburuxkan.

Bizkaia hitza ez da jadanik euskaraz erabiltzen. Hori bai, toponimian, Euskal Herri osoan hedaturik azaltzen da. Ezagunena, dudarik gabe Bilbao hiriburu duen herrialdea da. Nafarroan, esate baterako, alderdi zabal bati esaten zaio *Bizkaia* (*La Bizkaia* hobeki esateko). Zangozerrian, Oibar eta Elo artean, Ezporogiko barrutian. Iruñerrian, gainera, bada beste *Bizkai* bat, Atondon hasi eta Itza-Eritzeraino doan mendia hain zuzen ere. Erronkarin ere ugari dira *Bizkai* izeneko mendiak eta esan liteke ibar horretan oso berandu arte erabili ohi zutela hitz hau.

Esanahiaz den bezainbatean, Erronkariko datuei begira batez ere, gaztelera *Sierraren* parekoa dela esan genezake. Dena den, eta hitzak alde batera utziz, *bizkai* bat zer den, edo zer izan litekeen, ikusteko hoberena aipatutako bi mendi horiek ikustera joatea da. Atondoko eta Elortzibarreko *bizkaiek* ezaugarri amankomunak dituzte. Nabarmena mendi luzeak eta gorabehera gutxiak direla. Horra hor, beraz, zer izan daitekeen *bizkai* bat. Egia esan *bizkar*-aren esanahitik, eta itxuratik, oso hurbil dago, konparazio batera, Iratin *Orbizayaco bizcarra* dugu eta Orreagan mendi bati *Garabizkar* eta *Garabizkai* deitu izan zaio.

Esfortzia egin dezagun *Bizkaia* erabiltzeko. Bertakoek eskertuko ligukete eta, bidenabar, izen artificala baztertuko genuke.

MIKEL BELASKO

Jenero Xumekoak

Peligro Benta (II)

Egia saltzen duenak musu bat eman zidan, eta ezti zapore dut ahoan. Musu bat eman zidan konfiteroak eta txokolate zapore dut ahoan. Eztiya goxoa bezain eztiya da goxokia. Ez dakit nola aterako naizen korapilo honetatik, baina bietatik bat negarka.

JEREMIAS ERRO

KAZKARROAN

O G D E H X B R M F O I
I L P J A G E D A O G K
A F A Z N B U L E B U F
G R I T E N Z A H R R A
J D M A Z I K D U Z D E
H A O B O A U A S E I G
L P I R J U G P A B A D
G K D A F E T U S A I F
B I D N E M R U T I N E
A O D E R A E L L I D J
O K A X E U K I A K A B
H I B E S B A Z G O B A

LETRA ZOPA

Aurki itzazu letra zopa honetan Burundako harana osatzen duten 6 udalerrien izenak. Izan hauek ezker eskuin, eskuin esker, goitik behera, behetik gora eta diagonalean irakurrita agertuko zaizkizu.

Bizi Bizian

Komikigintzari buruzko ikastaroa antolatu du Iruñean GITE elkarteak, eta bertan Asisko, Pernan eta Mattin 'Napartheid' komikiaren partaideak izango dira. Teknikak, baliabideak eta emaitzak landu eta trukatu dira ikastaro hauetan, eta «ikastera» azalduko direla adierazi du Asiskok, «guk denboraren poderioz ikasi duguna sailkatu eta azaltzera».

Euskal komikiaren funtsak

PATXI ULAIAR / IRUÑEA

Asisko, Pernan eta Mattin 'Napartheid' euskal komikiaren partaideek emango dute hurrengo hiru asteburuetan —izen emate handiagoa izatekotan, beti ere— mota honi buruz burutzen den lehendabiziko ikastaroa. Egun horietan gidoi bat izatetik komiki batean gauzatzearainoko bidea nola burutu erakutsiko dute. Horrela, historia bat nola nobelatu, gidoi bat nola antolatu, planoen kokapena, irudien jarraipena, testuaren inguruko errotulazioa, bitartekoen balioa, teknika ezberdinak, karikatugintza... landuko dituzte.


Hiru komikigileek, maisu lana egitera baino, beren teknikak eta esperientziak «sailkatu eta azaltzera» doazela dio Asisko Urmenetak, hau izango baita beraien lehendabiziko ikastaroa. «Gu autodidaktak izan gara, gutako inork ez baitu horrelako ikastarorik egin. Horregatik, bertze munduko gauzarik ere ez dugu erakutsiko. Guk ikasitakoa azaldu besterik ez». Honek zenbait sailtasun ere gehitzen diela dio

Komikiak egiten, gauza guztietan bezala, ikasi egiten da. Dohaina ere izan behar duzu, baina aurretik zaletasuna».

komikigileak. «Dakiguna ez da errez azaltzen, senezko den zerbait arrazoitzea zaila baita».

GIDOIA ETA MARRAZKIA Komikigintzan badaude bi zati, ezinbestekoak

biak, baina noren komikia izanik orduan eta garrantzi ezberdina hartzen dutenak: historia eta marrazkia. Ikastaro honetan garrantzi berezia eman behar zaio historiari. «Nik betidanik eman izan diot garrantzi handiagoa gidoiari», dio Asiskok «izan baitaiteke marrazten ez dakiena baina gidoi aparta batekin, komikigile handia dena. Aldrebes gertatuz gero, hau da, marrazki ederra baina funtsik gabekoa eskutatik erortzen zaizu». Horretarako zineman gertatzen denarekin alderatzen du iruindarrak komikia. «Zineman badaude filme ederrak, bitartekari handiekin eginak, baina gero gidoiari, hu-



tsak dira. Hortaz dakiena segituan konturatzen da hor zerbait huts egiten duela. Aldiz, herrialde txiro edo hirugarren munduko filme ederrak badaude, oso baliabide gutxirekin eginak, baina zer kontatu daukatenak. Hori bai, askoz errezagoa da marrazki erakargarri eta polita egitea, eta jendeari horrekin ziria sartzea, gidoi tajuzkoa egitea baino».

Ikastaroa, berez, komikiekiko nolabaiteko interesa daukaten guztiendako dago pentsatuta, eta horretarako gogoa eta zaletasuna besterik ez dela behar azaltzen du Asiskok. «Ez dut artista hitza onartzen. Komikiak egiteko, gauza guztietan bezala, ikasi egiten da. Dohaia ere izan behar duzu, baina aurretik zaletasuna. Horrekin, eta ordu asko sartu on-

Napartheid' sortu aurretik egiten zen euskal komikia preziosista zen, erdaraz pentsatuta eta burututa, eta gero euskarara itzulita».

doren, lan askoren ondotik, trebetasuna lortzen da, eta emaitzak. Edonork lort dezake maila onenera iristea».

Apaltasun horrekin ekingo diote, beraz, maisu ikastaro emateari, nonbait izatekotan 'Napartheid' baitaude, besteak beste, euskal komikigintzaren maisu gazteak. Haiek, baina, «jendearen laguntza» beharko dutela diote, «idei eta tekniken elkartrukaketa izanzen baita». Bertan oso bereziki landuko dira komiki batek behar dituen lanabesak, euskal arloan gutxi jorratuak oraindik ere. «'Napartheid' sortu arte egiten zen euskal komikia preziosista zen, hau da, erdaraz pentsatuta eta burututa, eta gero euskarara itzulita, Eusko Jaurlaritzak edo antzeko erakunderen eskutik. Horrek ez dauka ez hanka eta ez bururik».

Hori dela eta, kaleko giroak eskatzen duen hizkuntza eta baliabideak jorratzeari bereziki garrantzia ematen diote. «Hitanoak, kasu, garrantzi handia dauka, eta euskal onomatopieien zerranda luzea egin dugu, hainbat tokitik hartuta, komikigintzan funtsezko balorea dute eta». Guzti hori dela eta, zerbait berria sortzen ari diren kontzientzia dutela dio Asiskok.

Joaquin Estevan

.....Pro Des-Censo taldekoa

G ainetik begiratuta sistema-
ren kontra daudela dirudi,
eta horrela da. Ez dute onar-
tzen gizarte honetan ukiezina den
oinarrietako bat: demokrazia parla-

mentarioa, eta botoa ez emateaz gain,
errolatik ateratzearen aldeko eki-
menak bultzatzen dituzte. «Dena po-
litikarien eskuetan uzteak ardura fal-
ta ekarri digu», diote.

«Konpromezua berreskuratu behar da»

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑA

EGUNKARIA.— Orain arte errol-
datik kentzeko eskaera ofizialak
egin izan dituzue, baina aurten
utzi diozue bide horri. Zergatik?
JOAQUIN ESTEVAN.— Bide ofi-
zialari muzin egin diogu erabat,
ez baitago hortik inolako auke-
rarik. Botoa ematea derrigorrez-
koa da sistema honetan eta aurre-
ko urteetan proposatzen genuen
errolatik ateratzeko bide juridi-
koa hauteskunde kanpainetan
egin beharra zegoen: astebeteko
epea dago errolari alegazioak
eskatzeko.

Erantzuna, bai-
na, betikoa da:
nahitanahiez
egon behar du-
zu hauteskun-
de-errolan
sartua.

EGUNKARIA.—
Hala ere, zaila
dirudi sistema
honek oinarri
duen zerbaiten

kontrako proposamenik onar-
tzeak.

ESTEVAN.— Eta, hala ere, beste
lurraldetan posible da. Estatu Ba-
tuetan, nahi duenak ematen du
izena errolan egoteko, eta, hori
bai, behin izena emanez gero be-
tiko da. Hemen ez, ezinezkoa da.
Guk demokrazia partehartzaile
honen balioa ez dugu onartzen.
Izugarrizko nahastea dago eta
garbi azaldu nahi dugu demokra-
ziak partehartze handiagoa behar
duela izan, politikoei gure bo-
toekin egiten dutena lotsagarria
baita.

EGUNKARIA.— Zein desberdin-
tasun dauka zuen proposamenak
abstentzioarekin?

ESTEVAN.— Oso bitxia da, baina
guri beti eskatzen zaigu gure
abstentzioaren definizioa, azal-

pena, eta hori ez zaio eskatzen
botoa ematen duenari. Ez da kon-
tuan hartzen abstenitu baina go-
goeta egiten duenaren eta botoa,
gehiegi pentsatu gabe, ematen
duenaren arteko desberdintasuna.
Ez da kontuan hartzen jende
askok botoa ematen duela 'nor-
baiti eman behar zaiolako, edo
sinpatikoa delako'. Gure jarre-
raren eta astentzioaren arteko
desberdintasun teknikorik ez li-
tzateke izango, teoriak. Akaso
haiek onartu dezaketela sistema,
eta guk ez. Arlo honetan, siste-
marekin etena nahi duen honetan,

E z da kontuan
hartzen abstenitu
baina gogoeta egi-
ten duena eta botoa,
gehiegi pentsatu
gabe, ematen due-
naren arteko por-
tzentzia».


antzeko hiru jar-
rera eztabaida-
tzen ari dira
gaur egun: abs-
tentzio aktiboa;
boto zuria, pro-
testa gisa, tal-
deak zigortze-
ko; eta gure jar-
rera: ez gaude
errolan, beraz,
ez ditugu arauak
onartzen. Hiru-
rok sentsazio berbera dugu: jen-
deari ez zaio sistema hau gusta-
tzen.

EGUNKARIA.— Baina non da
arazoa, sisteman edo alderdiek
sistema erabiltzeko duten eran?

ESTEVAN.— Nere ustetan, siste-
man. Boterea daukazu une be-
retik gizartearekin harremanak
hausten dira, eta ez da inolako
kontrolrik onartzen. Alderdi batek
politika aldatu behar duenean ez
dio botoak eman dizkion jendeari
iritzia galdetzen, bere alderdiari
baizik, eta, jakina talde horretan
ez daude boto emaile guztiak.

EGUNKARIA.— Hori da, ordea,
betiko arazoa, greziarrek sistema
asmatu zutenetik.

ESTEVAN.— Betiko arazoa da,
bai, eta esaten da hau dela txarren
artean hoberena, baina ez dugu



JOXE LACALLE

horregatik derrigorrez onartu
behar. Kritikoak behar dugu izan,
eta horretarako boto kopuruen
bidea, akaso, ez da egokiena.
Eseri behar dugu zertan eta nola
jokatzen dugun erabakitzeko.
Desadostasuna eta haserre oso
handia da. Ez dut ulertzen pasa-
den hauteskundeetan PSOeri
botoa eman zion batek orain PPri
ematea. Hori horrela bada, he-
men zerbait huts egiten du.

EGUNKARIA.— Zein da zuen al-
ternatiba?

ESTEVAN.— Guk mezu baikorra

eman nahi dugu, jendeak bere
protagonismoa berreskura de-
zan. Goi mailako politika ez da
aldatuko, baina behe mailetan
posible da. Gauza asko konpondu
daitezke herrian edo auzoetan
jendea antolatzen bada. Kon-
promezua berreskuratu behar da,
mobilizazioa, dena politikarien
esku uzteak ekarri baitigu asper-
kizuna, ardura falta izugarria.
Jende guztiak kritikatzeko gaitu
botoa ez emateagatik, denei, an-
tza, kalte egiten diegulako. Baina
jendeak gauza asko egin deza-

D ena politikarien
esku uzteak ekarri
digu asperkizuna,
baina gauza asko
konpon daitezke he-
rrietan jendea anto-
latzen bada».

keen kontzientzia izan behar du,
eta politikan erabiltzen diren hitz
hutsak ahaztu.

EGUNKARIA.— Hala ere, abs-
tentzioa bultzatzen dutenen ar-
tean zailagoa ematen du partai-
detza hori berreskuratzeko...

ESTEVAN.— Baina baita boto
emaileen artean ere. Guri beti
galdetzen digute ea zergatik ez
dugun botorik ematen, eta guk
galdetzen dugu: 'eta zuk zergatik
ematen duzu botoa?'. Jende
gehienak botoa eman, eta gero
urtean zehar ez du ezertxo ere
egiten.

EGUNKARIA.— Zenbat jende
dabil honen inguruan?

ESTEVAN.— Orain egin berri du-
gun aurkezpena Espainia osoan
ere egin dugu, baina zaila zaigu
dena zenbatzea, taldeak nahiko
libertario antzekoak baitira
gehienak. Hala ere, uste dugu gu-
re proposamena mamitu egin de-
la abstentzioa bultzatzen dutenen
artean.

EGUNKARIA.— Eta alderdiren
bat sortu zenezakete?

ESTEVAN.— Gogorra litzateke
hori... (barrezka) Egin ditugu
idazki batzuk jendearen artean
banatzeko eta gogpeta bultzat-
zeko. Jendeak buruari bueltak
ematen baldin badizkio, ongi li-
tzateke. Ez daukagu beste handi-
nahirik, ezta botere nahirik ere.
Gure irizpideak botoak biltzeko
garai hauetan erabiltzen diren
kontrakoak dira.

NOSKI
JATOR

ZVLDI ERQA

